

ttipi-ttapa

1991.eko Ekainak 6

63. zenbakia


dohain banatzen da



**Zenbait udaletan
entsalada ederra**

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



• **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...

• **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**

• **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**

• **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

Praktikak:

Aste bat Eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

EUSKARAZ eta ERDARAZ

BIDE BERRIAK URRATZEN HASTERA GÖAZ!!

Barnetegia

Euskaltegia

Euskal Txokoa

Albergea

Areto egokiak txarлак,
hitzaldiak etabar emateko...

Izan zaitez laguntzaile!!

Matxinbeltzenea

zabaltzen

Proiektu hau Bortzirietan, bertako euskaltegirako lokala egokitu, eskualdean euskarari bultzada eman asmoz, eta Euskal Herriko edozein zentro, talde edo partikularrari euskara ikasteko, euskaraz bizitzeko, eta Nafarroako eta Iparraldeko ingurua ezagutzeko posibilitatea eskeini asmoz gauzatu nahi dugu.

Lagun ezazu zuk ere **laguntzaile** eginez, horretarako 3 urtez hilabeteen 1.000 pztako diru laguntza emanez.



BIDALI: BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIra
Beheko Plaza – 31770 LESAKA

Izen/Deiturak.....
Helbidea.....Tfnoa.....
Banku edo Aurrezki Kutxa.....
Bulegoa.....Kontu zenbakia.....

Onartzen dut, aipaturiko kontutik behean agertzen den diru kopurua hileror ordaindua izan dadin Nafarroako Aurrezki Kutxako 0007 910092375.9 kontura.

☐ 1.000 pzt. / gehiago..... Sinadura

zer - non

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/27 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Areso, Goizueta...

"Hauteskundeak 91" gehigarri berezia.

28 ELKARRIZKETA: "Herrietako eskolak" Azpilkueta, Donztebe eta Etxalarko irakasleekin solasean.

Pello Apezetxea

30 KIROLAK: Txirrindularitza: V. Marino Lejarreta Sarian Elektako Francisco Sota txapeldun

33 ARO BERRIAREN ATARIAN:

Fermin Alzuguren

34 MERKATU TTIKIA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 4.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** R. Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton, Patxi Petrirena, Olhain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, AOT eta Enbido-k. **Argitaratzailea: ttipi-ttapa . Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskarā Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.... **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa 088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun 453039

Gartzain 580451

Oronotz-Mugaire 592024

Ituren 450183

Sunbilla 450283

Goizueta 514067

Igantzi 637755

Arantza 634131

Bera 630929 / 630036

Etxalar 635105

Urdazubi 599130

ANBULATORIOAK

Irun 630264 / 621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea 614444

Nafarroako ospitalea 102100

SSko urgentzi zerbitzua 246750

Virgen del Camino

erresidentzia 262700

Gurutze Gorria 226404

ANBULANTZIAK

Oitz 450242 / 450342

DYA

Lesaka (larrialdiak) (943) 464622

Elizondo (larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Lesaka 637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire 592044

GARRAIOAK

Bidasotarra 630279

Baztanesa 580129

Leitzarain 515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo 580730

Lesaka 637154

Bera 630104

ABERIAK:

Iberduero 450335 / 450336

Deialdiak

► **LESAKA**, Ekainaren 7an, arratsaldeko 5etan, Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, Ekainaren 7an, arratsaldeko 7etan, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA**, Ekainaren 11an, arratsaldeko 7etan, Berako Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, Ekainaren 13an, arratsaldeko 5etan, Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, Ekainaren 14ean, arratsaldeko 7,30etan, Etxalar-ko Euskara Batzordearen bilera.

► **LESAKA**, Ekainaren 20an, arratsaldeko 6etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza batzordearen bilera.

Botikak

► **Ekainaren 8-9an**, Bera, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Ekainaren 15-16ean** Arantza, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

Dantzaldiak

► **LESAKA**, Ekainaren 9an, Plaza Zaharrean IZOTZekin dantzaldia.


Erakusketak

► **ELIZONDO**, Ekainaren bigarren hamabostaldian, Arizkunean, Luis de Vera margolariaren lana.

Kantaldiak

► **BERA**, Ekainaren 8an CARLOS MEJIA GODOY LOS DE PALACAGÜINA arratsaldeko 11etan. Eguraldi txarra bada Alzateko Pilotalekuan eta ona bada Berako Plazan.

Bota bertsoa



Iñigo Olaetxea *

Gaia: Azterketak

Neurria: Leiho ertzetik entzun dezaket

* (Bortzirietako Bertso eskola)

Bolada hontan berriro dator azterketen imagina Eskola denen protagonista ikaslentzat da egina Ekaina eta Irailan dira askoren buruko mina nahiz izan ikasle fina kezkatzen gaitu jakina azterketetan murgildu gera ez da garai atsegin zifra ta letrez bete beharko bait da buruko makina

Kurtsoa ongi gainditzea da ikasle askoren meta ta hortarako prest daduzkagu makina bat azterketa gainera denak izaten dira konplikazioz beteta jarri zazute arreta oso zailak dira eta behar bezala ikasteko're ez bait dadukagu beta kontseju on bat nere partetik egin zazute txuleta

AGENDA

Bertsoak

▷ GOIZUETA

BERTSO-FESTA

Noiz: Ekainaren 15ean, arratseko 8,30etan.

Bertsolariak: Xebastian Lizaso, Andoni Egaña, Anjel M^a Peñagarikano eta "Mañukorta". **Gai-jartzaile:** Manolo Arozena.

Non: Elkartasuna zine-man. Ondoren, bertso-afaria Umore Onan.

▷ LESAKA

JUBILATUAREN EGUNA

Ekainaren 16an, igande, San Fermin Jubilatutako elkarteak antolatua. Goizeko 9etan: Iruñeako gaiteroak eta Lesakako txistulariak.

11,15etan: Meza nagusia. Jubilatutako ezpata-dantzariak eta banda.

14,30etan: Anaitasun bazkaria frontoian. Kulturastearen sari banatzea

Gastronomia

Mihiarra edo lenguadoa euskal erara



Maritxu Portuk emana
MUGAIRE Jatetxea - Oieregi

Osagaiak

4 lagunendako:

400 gramoko 4 mihiarra
xerratuak; gurina edo man-
tekilla; txalota; gatza; piper-

xuria; koñaka; txanpinoiak;
ilarrak; pikillo piperrak;

ganbak; tomate; arrai sal-
da.

Kazula batean gurina eta
txalota xehetua bota ondo-
ren, sutan jarriko dugu. Mi-
hiarra xerrak irinaz pasa-
tu eta kazulara bota. Ko-
ñaka bota ondoren sua
eman eta gero, bi zopa-ku-
txare tomate eta arrai-salda
dezilitro bat gehitu. Segidan
ilarrak, txanpinoiak, pikillo
piperrak eta ganbak bota
eta jateko prest.

Baserriko feria

▷ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-
lokoa): 6.900pzta. **Zerri
gizena** (95-100): 177 pzta./
kilo bizirik. **Urdamak:** 75-
95 pzta./kilo bizirik.

▷ BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....550
1.koa.....510
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....560
1.koa.....540
2.koa.....500
Oharra: Prezio hauek 300-
340 Kg. kanalean dauzka-
ten idixko eta 200-250 Kg.
dituzten urruxentzako.
Baztango aretzea: 625
pzta/kg. Kanal.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340
Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri

ona: 380 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000
eta idixkoak 23.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 28.000
eta idixkoak 35.000 pzta

▷ BILDOSKIA

•12 kgkoak 400 pzta bizirik

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

11 galdera ilabur

Zinema



► Lander Santamaria
Kazetaria

- Idaztea ala irakurtzea? Biak
- Ordenadorea ala boligrafoa? Ordenadorea, noski.
- Herriko kronikak ala sakoneko erreportaiak? Sakoneko erreportaiei gusto gehiago hartzen diet.
- Eritzi artikulak ala informatiboak? Informatiboak nahiago ditut.
- Navarra Hoy ala Diario de Navarra? Navarra Hoy
- Prentsa elebiduna ala elebakarra? Euskaraz eta erdaraz egina datorrena.
- Debaldeko prentsa ala erosibeharreak? Biak.
- Irakurtzerakoan, editoriala ala suplementoa? Editoriala
- Estatuko prentsa ala herrialdetakoa? Herrialdetakoa hurbilagokoa da.
- Telebistan, kirolak ala pelikulak? Errealak jokatzeko ez baldin badu, edozer gauza.
- Etorkizun hobeagoa egunkari ala telebistentzat? Telebista informatiboagoa bada ere, biak iraunen dute.

► Mister Johnson
Bruce Beresford
Australia - 1991

Kolonialismoa ikasgai batetan. Afrikatik; europar edo ipar-amerikar zinegileek leku zabal eta koloretsutik aparte, ez digute gauza haundirik erakutsi. Oroitu "Las minas del rey Salomón"-etik "Memorias de Africa"-ra. Gehienetan Afrika beltzean ingeles jende zurien arazoak etxalde eta bizi giro finetan.

Australiar zinegileak desberdinak dire gauza batzuetan; ipar-



Maynard Eziasqui nigeriarra saritua izan da Berlingo festibalean

merikar filmetan faltatzen dena eta europar filmetan gehiegi dena sartzen diote australiarrek eta berezitasun bat lortzen dute.

Hau da; Mister Johnson, zuria izan nahi duen beltza. Edo zuria

eta beltza diren bi pertsonen ezinezko adiskidantza.

Afrika eta Europako kontrazioak edo kontraesanak sortzen dituen kulturaren desberdintasunak daude bi pertso-

na hauetan metafora gisan landuak. Berlineko azken festibalean, Maynard Eziasqui nigeriarra saritua izan da filma honetan egin duen bere lehen lanagatik.

MARIANO



**AFRO
REGGAE
ZOUK**

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40



**Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza**

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

OKANE

**Haragi, janari-izoztu
enbutido, yogurt...**


**SEKULAKO AUKERA
PREZIO ETA
KALITATEAN**

Kanttonberri 4,
Tfnoa: 63 00 18

BERA



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak egindako lanari esker herrietako auzo eta karriketako izenak euskaraz paratu badira ere, oraindik Nafarroako Gobernuak zenbait herrietako izenekin (izen ofizialak, bertzalde) ez du horrelakorik egin. Noiz arte?



Iruñeko Udalak 1.125.000 pezetatako sariez hornituriko olerki, narrazio labur, komiki eta bertso-paper lehiaketa antolatu du. Epea: Urriaren 26a.

Kultur Astea antolatu du Lesakako San Fermin Jubilatu elkarteak

Ekainaren 9tik 16raino luzatuko dira ekintzak

Lesakako San Fermin Jubilatu eta Pentsionisten elkarteak, Kultur astea antolatu du hilaren 9tik 16raino.

Igandean, hilak 9, Ibi-laldi erregulatua izanen dute, goizeko 10etan.

Astelehenean, frontoian kirolak izanen dituzte (bolo, rana eta toka txapelketa).

Asteartean, Basa Kabi txangoa izanen dute, goizeko 8 etan aterita.

Asteazkenean berriz, arratsaldeko 7etatik aurrera mus txapelketa burutuko dute.

Ortzegunean, ekainak 13, Ajoarriero eta txistorrada lehiaketa garatuko da elkartekideentzat arratsaldeko 5etan hasita Irain frontoiko zelaian.

Ortziralera pasatuta, arratsaldeko 7etan hasita, pelota partiduak jokatuko

dira frontoian elkarteko kideen artean.

Larunbatean, arratsaldeko 8etan, euskal antzerkia izanen dute frontoian Bederen I taldearekin.

Azkenik, ekainaren 16a, igandea, Jubilatua-ren eguna izendatu dute.

Goizeko 9etan, Iruñeko Gaiteroak eta Lesakako txistulariak herrian barna ibiliko dira. 11,15 etan jubilatuen bilera Plazan eta meza santua. Bertan jubilatutako ezpatadantzariak eta Herriko banda arituko dira. 2,30etan anaitasun bazkaria udal frontoian. M. Asuncion Sarobe Viela anderea, botikaria eta Santiago Irigoien Igoa txistularia eta txapelketa irabazleei trofeoen banaketa. Bonoak, CAN, bankoak eta Karmen-en.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



KIROL POLITIKA?

Egun batzu dira lehendabiziko aldiz aditu nuela eta tenorea, hauteskunde eta kanpainak direla, murmurioen fidagarritasuna sendotzeko ez da aproposena, generalki... pentsatu nuen. Bestalde, zein esplikazio du aferak? Garbiñe Elizaintzin, eskualdeko kirol koordinatzailea izan behar zenari buruz ari naiz, bere ezkontratazioari buruz, hobe esanda. Murmurioak dio:

- Froga pasa ondoren – berak aurkeztutako plangintza onena zen – Baztango Udalaren kargu gelditu zen kontratazioa, kapitalidadea bait du;

- Jakin zuten, nonbait, HBtarra omen dela eta, hortaz, agote arraza berrikoa.

- Legeak eta beste udalen aginduak bete gabe denbora joaten utzi...

- Goikoen adostasunarekin? Murmurioa hagitz konpletoa da eta, berak

dionez gero, aferak Maiatzaren 27rako konponduta dago, OHOk irakasle bat kontratatuko bait da, Garbiñen lanpostua betetzeko.

Nahiago nuke guzti hau egia ez balitz, udaberriko murmurio bat besterik ez... Udaberriek badaezpada ere, kontuan har dezatela: gogoratu, eskualde honek badu kirol koordinatzaile konkretu bat, Garbiñe. Beste edozein jokaera kirol politika izan beharrean poli-

tikaren kirol dopatua izanen zen.

Beharrezkoa babiliz argitu behar dut: HBkoa ez naiz, Garbiñe Elizaintzin ez dut ezagutzen eta bere hautaketan, aurkeztu ziren plangintzen aukeran, hobe esana, parte hartu nuen. Legezkoa den bezala ez genuen afiliazio karneta eskatzen.



Juainas Paul Arzak
Zubietako zinegotzia

MULTAK

Elgorriagako bi gazte gara, Kiko Sukilbide eta Luis Olazar. "Pikolok" sartu ziguten multa beldurgarri batzuk. Berrehun mila pta. Kikori eta 165.000 Luiseri. Hau esaten dugu jende guztiak jakiteko. Kontuz ibili mendiko motoekin, ezin baita ibili erre-pidean. Bestalde gehiengoak ez dira matrikulatuak eta ez dute paperik ere. Eta... horiek ez dute barkatzen!



Legia 11 - 63 06 64 BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

BOAN TAILERRA



CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

GOZOTEGI - JAIONE



Itzea 3, 630786 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92

BERA

SAROB okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



ESTETIKA • SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

Gasbidea gauzatzeko lanak epe laburrean hasiko dira udalerrian

ROMAN HARRIBILAGA

Epe laburrean emanen zaie hasiera gasbidea gauzatzeko lanei. Horretarako, lizentzia eman dio Udalbatzak "Enpresa Nacional del Gas"-i (ENAGAS), eraikintza tasa bezala 792.152 pza. ordaindu beharko diolarik Udalari. Gasa "GAS Euskadi" enpresak hornituko du Irundik eta lanak "Enagas"-ek burutuko ditu.

Lehen fase batetan Berako eta Lesakako Industrialdeetako zenbait lantegi hornituko ditu gasak, eskatu dutenen artean honako hauek aurkitzen direlarik: "Laminaciones de Lesaca, S.A." (AHV), "Fundiciones de Vera" (FUNVERA), "Palmadera S.A.", "Maderas Gurea, S.A.", "Alco, S.A." eta "Verkol S.A.".



Gas-naturalak Berako industrialdea hornituko du laister



Legia karrika oso-osorik berrituko da. Espaloiak moldatzeaz gain, karrika asfaltatu egingen da, urak bazterretara bildu beharrean karrikaren erdira bilduko direlarik

Egitasmoaren ezaugarriak

Gasbidea 18.080 metroko luzera izanen du guztira. Bere ibilbidea Irungo Ibarlatik hasiko da Erlaitz gainera igoz Pago-gainaraino, Enderlatsarantz jausteko gero. Ondoren, trenbidean barrena Zalain auzora. Hemendik Baldrun menditik gora Lesakara zuzenduko da

gasbidearen adar bat Zalaingo Industrialdea utzita eta N-121-A errepide bazterretik "Palmadera, S.A." eta "Maderas Gurea, S.A." lantegietara zuzenduko da bertze adarra. Aldi berean herrigunea ere gurutzatuko du gasbideak Kaxerna al-

derdian barrena Agerra auzoraino, "Fundiciones de Vera, S.A."-raino iristeko, karretera zeharkatu ondoren.

Berako udalerrian gauzatuko diren lanen aurrekontua 26.405.100 pezeta-takoa da.

Legia karrikaren birmoldaketa

Hasiak daude dagoeneko Legia karrika osorik birmoldatuko dituzten lanak. Dena altxatu eta gero, espaloiak moldatu eta asfaltatu egingen da zola; al-diberean, urak bazterretatik bildu beharrean erdian egingen den bidetik eram-nen dira, jauskera baten bitartez. Lanak "Constru-ciones, Irurek" enpresak egingen ditu 5 milioiko aurrekontuarekin.

Bidasoa karrikan espalo berria

Bertzalde, Bidasoa karrikako 1.027 metro espaloi berritzeko lanak ere hasi berriak dira. "Constru-ciones Mariezkurrena S.L." enpresak gauzatuko du projektua, 30,5 milioi-ren alde.

Irrati Mankomunitate baten alde

Bere onarpena eman dio udalbatzak Sunbillako Udalak Irrati Mankomunitate bat sortzeko proposamenari.

Irratiak euskara hutsa erabiliko luke hizkuntza bezala eta bere esparrua Bortzirriak, Malerreka eta Baztan eskualdeak lirateke.

LESAKA

Laminaciones zabaltzeko bigarren pausua eman-da

Konbentuaren zati bat botatzen hasiak dira jadanik

AITOR AROZENA

Maiatzaren 27an, hauteskundeak pasatu eta hurrengo egunean hasi ziren Karmeliten konbentuaren zati bat botatzen, horrela Arau Subsidiarioen aldatetarekin (PNV eta EA-ren botuei esker) hasi zen Laminaciones de Lesaka enpresaren zabaltzeari jarraipena emanez. Erabaki hau hartzerakoan herritarrek aurkeztutako 36 alegazio atzera bota zituen Udalak iazko Urrian egin-dako pleno batean. Orduan, HBk *"herria Laminaciones-en eskuetan dagoela"* salatu zuen bitartean, alkatetarako *"lanpostuen mantentzea, hiri eta kirol azpiegituraren lortzea eta Laminaciones-en eskuetan zeuden lurrak Udalaren eskuetara pasatzea"* azaldu zuen Arau Subsidiarioen aldaketa onartzeko arrazoi nagusi bezala.



Landazelaiak-ek aldizkaria argitaratu du

Iazko Abenduan argitaratuko 0. zenbakia jarraipena emanez, bere aldizkariaren 1. zenbakia argitaratu du Landazelaiak ekologista taldeak.

Aldizkari berrian, zaborra % 80ean birziklatzeko dagoen aukera eta paper desberdinak egiteko beharrezko errekurtsoak azter-



tzen dira. Laminaciones-en anpliazioa dela eta taldeak aurkeztutako alegazioak, kontaminazioaz eta isurketaz gain, komikia ere agertzen da aldizkarian.

San Ferminen jubilatuen bidaia


Ekainaren 11an, San Fermin Jubilatuen elkarteak bidai bat antolatu du. Beolan gosalduta, Ultzaman Danone fabrika bisitatu eta Lekunberri eta Leitzan barrera joan dira, Basakabi jatetxean bazkaltzeko. Bueltarakoan, Goizuetan geldituko dira eta herrira arratseko 10etan iristea espero dute. Izena emateko epea, Ekainaren 8an bukatuko da eta pertsona bakoitzeko 2.500 pzt. ordaindu beharko dira (bidaia, gosaria eta bazkaria).

27 talde futbito txapelketan

Beti Gazte elkartearen 50. urteurrena ospatuz antolatu den futbito txapelketan Bortzirietako 27 talde apuntatu eta pasa den asteburutik jokatzeko ari dira Irain eskolako frontoian.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

ARRATZUBI
ardotegia
Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA


GOIZUETA
KIROLAK
Kirolak
Mendirako artikuluak
Beheko Plaza 10 LESAKA

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA


★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA
Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 637127 LESAKA

Irakasle behin-behinekoen edo interinoen arazoak

Eskolako IV. Ipuin lehiaketaren sariak banatu ziren

PELLO APEZETXEA

Gure eskoletan ari diren zenbait irakasle, inolako egonkortasunik gabe daude. Zera erran nahi baita: bere lan kontratuak ez dira finkoak, urte bateko edo sei hilabetetako iraupena gainditzen ez dutenak, gehienez ere hiru urtetakoa. Hori aski ez baltz, denbora horretan harat-hunat bidaltzen ahal dituzte, gaur Bortzirietan dagoenari bihar Korellan egotea gerta dakiokelarik. Hau irakasleentzat atsegina ez bada, herrietako haurrentzat ere ez da egokia, noski. Irakasle batzuren gaitza edo nahigabeko egoera berezirengatik izanez gero, konprenigarria litzateke. Arrazoia, ordea, antza denez, Gobernuak gai hauetan duen jokaera



Euskal katekesiaren eguna ospatuz 500 haur bildu ziren Iruñean apirilaren 27an. Bortzirietatik ere 3 autobus bete ziren eta etxalartar taldeak antzerki polita eskeini zuen Salesianotako ikastetxean

murritza da, bertze batzutan ez bezala, zenbait aldiz hain aisa gastatzen duen sosa, honetan ez egin nahia, alegia.

Ipuin lehiaketaren sariak banatuak

Etxalarko 4. ipuin lehiaketan 38 haurrek parte-

hartu dute, ipuinak idatziz, OHOk maila guzietakoak.

Sarituak honako hauek izan dira: Lehen zikloan «Aurtengo udaberria», Mariskineko Bordako Laura Elizagoienek 1. saria. «Pintorea», Bautisteneko Patrizia Garatere-

nak 2.a.

•Erdi zikloko 3-4. urteetan «Zientifikoa eta bere kuadernoak» izenekoari eta «Anai-arrebatxoak»i, Antxurdeneko Bordako Mikel Goienetxe eta Urri-tiko Jasone Mitxeltorenak idatzia, lehen eta bigarren saria.

•Erdi zikloko 5. eta 6. urteetan Armitxeko Ezti-txu Etxarte eta Matxinene-ko Jesus M. Irisarri izan dira irabazleak, «Baso misteriotuaren barruan» eta «Izarretako gerlariak» ipuinez.

•Goi zikloan, Xoraxuriko Bordako Ainara Arburuak jaso zuen lehen saria, «Martiziano bat nere etxean» ipuinaz, bigarren saria berriz, Arrigaraiko Ander Ansalasen «Ezpatako heroia»k.

IGANTZI

Herritik Bentarako bidea hagitz gaizki dago

OSKAR TXOPERENA

Egoera penagarrian dago Igantzitik Bentara bi-tarteko bidea. Azken aldi horretan bidea zabaltzeko egindako obretan izugarri pisu txarra eman zuten eta horren ondorioz bihurgu-

ne guztietan altxatu egin da eta izugarrizko zoluak daude orain. Azken aste horretako eguzkiaren ondorioz arraso beratu egin da gainera eta kotxe guz-tiak galipotaz bete egiten dira bertan ibiliz gero. Ez litzateke txarra izanen di-putaziokoei bertatik buel-

tatxo bat ematea.

Eskolak moldatzeko dirulaguntza

Duela hilabete batzuk egin baldin bazen eskaera Nafarroako Gobernuan orain ailegatu da laguntza horren baiezkua. Milioi terdi pezeta bidaliko dituz-

te eskola kanpotik pixka bat txukuntzeko eta baita ere atari sarreran ate bat paratzeko.



(bertze aldean segitzen du)

Hauteskundeak pasatu dira

Hainbertze aldiz aipatutako Maiatzaren 26a pasatu da azkenean. Hurrengo lau urtetako zinegotziak berexi ondotik hauei tokatuko zaie orain lan egitea. Hemendik lau urtetara ikusi beharko emaitzak.

Herriari dagokionez Herri Taldeak irabazi zuen 124 botoren diferentziaz

eta 5 zinegotzi lortu zituen. Union Independiente de Yanci-k, aldiz, bi zinegotzi. Gogoratu behar da, orain dela lau urte 22 botuko diferentzia izan zela bi taldeen artean.

Parlamenturako berriz, badirudi oraindik Igantzin PSOE, UPN eta horrelako partiduak klientela koskorra dutela, abertzaleek bezain emaitza onak lortu zituzten eta.



ARANTZA

Juana Elizondo, Martinoneko monja, Ama Generala hautatua izan da Erroman

JON LARRETxea

“Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul” kongregazioaren Ama Generala hautatua izan da orain dela gutti Erroman, Martinoneko Juana Elizondo. Kongregazio honek gaur egun 30.000 monja ditu munduko 75 naziotan banaturik. Aipatzekoa da, hautaketa honek 358 urteko tradizioa hautsi duela, kongregazio hau Parisen 1633. urtean sortu zenetik beti superiora generalak frantsesak izan bait ditu. Oraingoan berriz, lehenengo aldiz frantsesa ez dela, aranaztarra alajaina! Berriz ere, erranen dute aranaztarrak leku guztietan



Juana Elizondo

gaudela.

Juana Elizondo, Martinonea baserrian jaio zen, 1926ko ekainaren 24ean. 25 urte zituela Madrilera alde egin zuen Filosofia, Magisteritza eta laguntza sozialeko ikasketak burutu zituelarik. Gero Parisera



Arantzako haurren herri kirol taldea finalean

joan zen, bertan 17 urte eman zituelarik. Estatu Batuetan ere egona da. Euskara, espaniera, frantsesa eta inglesa dakizki, alemana eta italiera ere ulertzen dituelarik. 1980 1985ean, Ama Superioraren hurrengoa izan zen.

Hauteskundeak

Zinegotziak, Juan M. Almandoz, Xabier Etxague eta Josetxo Larretxea HBtik, Vicente Arocena, Jose Larretxea eta Fco. J. Etxeberria PNVtik eta Florenzia Vicendoa EAtik.

PABLO-ENEA
Jatetxea

Tfnoa: 63 40 77

ARANTZA

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo
IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. – Tfnoa.: 63 11 08 – BERA

ARMUA
Jatetxea



Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

Irrati municipal bat sortzeko proposamena

PATXI PETRIRENA

Maiatzaren 3ko ple-
noan, honako mozio hau
onartu zuen aho batez
Sunbillako Udalak, euska-
raz ari diren irratien egoera
dela eta:

**“Euskarazko irradi
emisioei buruz.** Nafa-
rroako komunikabideetan,
bereizkeria ageria da eta
moldatu beharrekoa. Gaur
egungo legediaren arabe-
ra, herrien titularitatepeko
irradiak sor daitezke, gure
kasuan euskarari bere ga-
rrantzia emanen liokeena
eta euskaraz ematen duten
irratiei –Xorroxin–i lizen-
tzia ukatzeak dakarren on-
dorioari aurre egingen lio-
keena.

Gauzak horrela, Udal

honek zerbait egiteko mo-
mentua dela eritzirik, ho-
nako hau erabakitzen du:

1.– Titularitate munizi-
paleko euskal irradi baten
sorrera bultzatzea.

2.– Eskualdeko Udal
guziei (Malerreka, Berti-
zarana, Baztan, Urdazubi,
Zugarramurdi, Bortziriak)
ekimen honetara biltzeko
dei egitea, irratia-
ren titularra izanen den mankomu-
nitate bat sortzea proposa-
tuz, eskualde guzira heda-
tzeko, eta mankomunita-
tearen esku utziz irratia-
ren gestio zuzena edo zehar-
kakoa.

3.– Ordezkarari gisa,
Sunbillako alkatea eta kul-
tur zinegotzia izendatzea
mankomunitatearen eta
irratia-
ren sorrerarako behar

diren biderapen eta pape-
rak egiteko.

4.– Akordio honen be-

rri ematea Nafarroako Go-
bernuari eta aipatutako
Udalei”.



Sunbillako alebinak irabazle izan ziren proba konbinatuan, herrian
jokatu zen Haur mailako Herri Kirol txapelketan. Infantilak ber-
ritz, Ultzamarekin lehia ikusgarria izan ondoren, bigarren gelditu ziren
4^{ta}ara. Sokatiran infantilaren taldea laugarren izan zen eta erran
daiteke maila hagitz ona erakutsi dutela sunbildarrek txapelketa
honetan.

Bertzalde, haundiek, ekainaren 9an izanen dute aurtengo lehenbi-
ziko saioa Sunbillan bertan bere multzoan dauden Bera eta Anueren
aurka lehiatuz.

12 Tfnoa: 45 01 53
Doneztebe
Ostatua

Zintaren
ARROPAK
Udaberriko moda...
hementxe dugu!!
San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

**BEINTZAKO
OSTATUA**
Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

**ARRANO
ELKARTEA**

*Laister
Denontzat
Zabalik*

Albistur - LESAKA



Galeria Komertzialak, Colon Pasealekua 31, IRUN

ILEA ONGI ZAINTEKO
HOBETI EZAGUTU
BEHAR DA

FLOREN
ILEAPAINDEGIA

Kosmetologi
kabinetearen helbide
berria haxe da:

Tfnoa: (943) 619278

ELGORRIAGA

Kultur Etxea bukatu eta inauguratu da 17.523.602 pezetatako gostarioa izan du osotara berritze-lanak

J. I. OLAZAR

Garai batean, Doneztebeko eskolak egin arte, Elgorriagan eskola zena berri egin da orain Kultur Etxea bihurtuz. Garai hartako ikasgela moldatu egin bada ere, horretarako erabiltzea, zail ikusten da. Alde batetik haur eskariengatik eta bertetik Doneztebekiko hurbiltasunengatik.

Etxearen beheko aldean bestatan ostatua irekitzeko eta herritarren bazkariak egiteko egokitua dago. Lehenbiziko pisuan, berri, eskola, bigarren bidegela eta liburategia eta hirugarrenean joko-gela, ping-pong, futbolin, billar etabarrez osatua.

Bi zatitan egin diren berritze-lan hauek 17.523.602 pezeta kostatzen dira eta inauguratu zenean



kultur astea ospatu zen. Heldu den ikasturteari begira bertze ekintzez gain euskara ikastaroak antolatzeko asmoa dago.

Zola moldatu eta kanala estali

Hauek ere akituak daude, bideak losatu lurrez eta breaz eta herria gurutza-

tzen zuen kanalea estali. Azken batean, balore arkitoniko gutti zuen kanal honek arriskua sortzen zuen eta zabortegirako erabilia zen. 14 milioitik gora kostatzen dira lan hauek.

Antenarako bidea moldatuko da

Hau izanen da eginen

den hurrengo lana; antenaraino doaien Bostorrateko pista egokitzea, ormigoia boteaz.

Erran, Nafarroako Gobernua ordainduko dituela moldatzea kostatzen diren 60 milioiak.

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpania on baten balioa.



Carlos III.a Etorbidea, 14
Tfnua.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUÑA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tfnua.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

Espektazioaren ondotik EA garaile

IBAN ISASI

Aurtengoan 375 pertsonak zeukaten botua emateko eskubidea Ituren eta 329k erabili dute, hau da %88,38ak. Udaltzauteskundeetan 5 zinegotzi atera ditu Eak: Jose Iparragirre, Jose Antonio Aiora, J.M. Gorosterrazu, Sagrario Iribarren eta Jesus Mari Ariztoi, HBk eta TBk bana atera dute: Periko Mindegia eta J.A. Isasi. Hilaren 15ean hartuko dituzte herriko giltzak



EAKoek. Legebiltzarerako, hauek izan dira emaitzak: Eak 175 botu lortu ditu, HBk 89, UPNk 38 eta PSOEek 19.

Aipatu azkenik gaueko 12,30ak aldera EAKo batzuko altzaferoekin ospatu zutela garaipena.

Aurtizko ostatuaren inbentarioa

Maiatzaren 29an Udalak inbentarioa egin zuen Aurtizko ostatuan, horrela lanak bukatutzat ematen dira eta ostalarien eskuetan dago jadanik. Aipatu

baita, lan hauei esker osoki birmoldatu dela lehen oso kondizio txarretan zegoen ostatua. Orain Aurtizko ostatuak, apartamentu bat, jatetxea, ostatua eta 6 gela bikoitz (bainu eta guzti) ditu eta hemendik aurrera zerbitzuan egonen da.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91



CRISTALERIA VELATE

TRUGLASS

- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Seguritate lunak

- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak
- ✓ Grabatuak
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Oparitzeko artikulak

ELIZONDON, Pedro Axular karrika, 1 - Tfnoa: 58 08 25
DONEZTEBEN, Merkaderes karrika, 5 - Tfnoa: 45 09 91

ZUBIETA

ION ETA JAIONE

Maiatzaren 19an, 26ko elekzioak zirela eta, Ira-mendi kandidaturakoek, Ana Mari, Periko, Koteto, Juainas, Patziku, Fermin-txo eta Inazio Marik, bilera egin zuten Eskolan. Bilera horren asmoa zen, egin denaren balantzea presentatu, bukatzeko dauden gauzak eta falta direnen lehentasuna azaldu, plan-gintza gisara.

Kalejira

Berriz ere herriko biko-te bat, Ion Mikel eta Hila-rio, joan zen Ekainaren 3an Euskal Telebistara, Kale-



jira programan parte har-tzera. Ea lehenengo aldian baino herritar gehiago azaltzen diren telebistan.

Animo!

Eta Kalejirarekin segi-tuz, Iñakik eta Ionek, Ar-zakenean afaria irabazi

zutenez ekainaren lea joan ziren afaltzera Do-nostira. Ea zein den hu-rrengo bikotea.

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea

Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)



Udal eta Parlamenturako hauteskundeak

Emaizak herriz herri eta parean jarriak

Udal
hauteskundeetako
botu kopurua (91/05/26)

Nafarroako Parlamenturako
hauteskundeetako
botu kopurua (91/05/26)

	EA		EE		HB		EAJ/PNV		PSOE		UPN		Bertzeak
													Udal hauteskundeak
ARANTZA	123	127	—	1	227	202	187	172	—	10	—	22	
ARESO	—	38	—	3	69	75	—	7	—	32	—	58	Grupo Ind. Areso: 153
BAZTAN	1440	1304	163	172	627	638	—	27	338	597	—	1977	Union Baztanesa: 2038 Agrup. Baztand.: 163
BERA	578	500	—	82	391	416	—	45	—	364	—	289	Herrialde: 810
BERTIZARANA	139	129	—	10	—	33	—	10	—	72	—	85	Ag. Elect. Bert.: 208
DONAMARIA	—	69	—	3	96	66	—	27	—	40	—	28	Herriko Taldea: 142
DONEZTEBE	292	304	—	18	96	83	—	31	—	132	—	172	Union Donezteb.: 239 Donezteren Alde: 172
ELGORRIAGA	—	27	—	3	—	33	—	6	—	25	—	17	Bostorraz: 116
ERATSUN	107	64	—	3	—	21	—	3	—	9	—	8	
ETXALAR	175	143	—	5	—	133	—	15	—	55	—	79	Herri Taldea: 251
EZKURRA	—	49	—	2	—	32	—	3	—	22	—	46	Cand. Ind. Ezkain: 98 Ag. Ind. S. Cruz: 74
GOIZUETA	—	123	—	6	451	407	—	4	—	15	—	24	
IGANTZI	—	89	—	8	—	93	—	61	—	93	—	72	Herri Taldea: 283 Union Indep: 159
ITUREN	197	175	—	0	67	89	—	0	—	19	—	38	Talde Berria: 61
LEITZA	568	477	—	24	552	544	—	11	—	165	—	414	Union Ind. Leitz.: 552
LESAKA	307	299	—	28	402	379	881	532	—	141	—	180	
OITZ	73	64	—	0	26	32	—	1	—	3	—	7	
SUNBILLA	265	202	—	5	107	90	—	0	—	52	—	57	
URDAZUBI	—	33	—	1	—	17	—	0	—	43	—	92	Independiente: 173
URROTZ	—	29	—	1	—	16	—	6	—	5	—	49	Herriko Elkartasuna: 75
ZUBIETA	—	48	—	44	—	51	—	11	—	26	—	26	Iramendi: 110 Herri Taldea: 94
ZUGARRAMURDI	—	9	—	1	—	23	—	12	—	24	—	39	Akelarre: 109
guzira	4302		420		3473		984		1944		3779		

Udaletarako botuen eboluzioa azkenekoekin konparaturik

ARANTZA

7 zinegotzi

HB
1991an 227 botu; 3 zinegotzi
1987an 287 botu; 7 zinegotzi

EAJ/PNV
1991an 187 botu; 3 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

EA
1991an 123 botu; 1 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

ARESO

7 zinegotzi

GIA
1991an 153 botu; 5 zinegotzi
1987an 149 botu; 5 zinegotzi

HB
1991an 69 botu; 2 zinegotzi
1987an 74 botu; 2 zinegotzi

BAZTAN

13 zinegotzi

UB/BE
1991an 2038 botu; 6 zinegotzi.
1987an 2772 botu; 8 zinegotzi.

EA
1991an 1440 botu; 4 zinegotzi.
1987an BA izenarekin

HB
1991an 627 botu; 2 zinegotzi.
1987an 676 botu; 2 zinegotzi.

PSOE
1991an 338 botu; 1 zinegotzi.
1987an 184 botu; 0 zinegotzi.

AB
1991an 261 botu; 0 zinegotzi.
1987an ez zen aurkeztu

EE
1991an 163 botu; 0 zinegotzi.
1987an BA izenarekin

BERA

11 zinegotzi

Herrialde
1991an 810 botu; 5 zinegotzi
1987an 604 botu; 4 zinegotzi

EA
1991an 578 botu; 4 zinegotzi
1987an 599 botu; 4 zinegotzi

HB
1991an 391 botu; 2 zinegotzi
1987an 494 botu; 3 zinegotzi

BERTIZARANA

7 zinegotzi

AEB
1991an 208 botu; 4 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

EA
1991an 139 botu; 3 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

DONAMARIA

7 zinegotzi

HT
1991an 142 botu; 4 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

HB
1991an 96 botu; 3 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

DONEZTEBE

9 zinegotzi

EA
1991an 292 botu; 4 zinegotzi.
1987an 244 botu; 3 zinegotzi.

UD
1991an 239 botu; 3 zinegotzi.
1987an 316 botu; 5 zinegotzi.

DA
1991an 172 botu; 2 zinegotzi.
1987an ez zen aurkeztu

HB
1991an 71 botu; 0 zinegotzi.
1987an 54 botu; 0 zinegotzi.

ELGORRIAGA

5 zinegotzi

Bostorraz
Jose M. Galarregi Apeztegiak 86 botu
Jose Ignacio Olazar Apeztegiak 79 botu
Fernando Martin Ibarak 65 botu
Paulino Etxeberria irigoienek 60 botu
Julian Irisarri Arrijuriak 52 botu

ERATSUN

5 zinegotzi

EA
1991an 107 botu; 5 zinegotzi
1987an botu; 5 zinegotzi

ETXALAR

7 zinegotzi

HT
1991an 251 botu; 4 zinegotzi
1987an 267 botu; 7 zinegotzi

EA
1991an 175 botu; 3 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

EZKURRA

7 zinegotzi

CIE
1991an 98 botu; 4 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

AISC
1991an 74 botu; 3 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

GOIZUETA

9 zinegotzi

HB
1991an 451 botu; 9 zinegotzi
1987an 285 botu; 4 zinegotzi

IGANTZI

7 zinegotzi

HT
1991an 283 botu; 5 zinegotzi
1987an 210 botu; 4 zinegotzi

UI
1991an 159 botu; 2 zinegotzi
1987an 189 botu; 3 zinegotzi

ITUREN

7 zinegotzi

EA
1991an 197 botu; 5 zinegotzi
1987an ez zen aurkeztu

HB
1991an 67 botu; 1 zinegotzi
1987an 96 botu; 2 zinegotzi

TB
1991an 59 botu; 1 zinegotzi
1987an 189 botu; 5 zinegotzi

LEITZA

11 zinegotzi

EA
1991an 568 botu; 4 zinegotzi
1987an 623 botu; 4 zinegotzi

HB
1991an 552 botu; - zinegotzi
1987an 588 botu; 4 zinegotzi

UL
1991an 552 botu; - zinegotzi
1987an 400 botu; 3 zinegotzi

LESAKA
11 zinegotzi

EAJ/PNV
1991an 881 botu; 6 zinegotzi
1987an 640 botu; 4 zinegotzi

HB
1991an 402 botu; 3 zinegotzi
1987an 516 botu; 4 zinegotzi

EA
1991an 307 botu; 3 zinegotzi
1987an 467 botu; 2 zinegotzi

OITZ

5 zinegotzi

EA
Juan Pedro Gofii Telletxeak 73 botu
Jose Antonio Gragirenak 73 botu
Carlos Mindegia Mitxeok 72 botu
Oskar Ilarregi Elizaintzinek 61 botu

HB
Jose Fco. Zelaleta Ariztegiak 26 botu

SUNBILLA

7 zinegotzi

EA
1991an 265 botu; 5 zinegotzi
1987an 185 botu; 3 zinegotzi

HB
1991an 107 botu; 2 zinegotzi
1987an 100 botu; 1 zinegotzi

URDAZUBI

7 zinegotzi

IU
1991an 173 botu; 7 zinegotzi
1987an 197 botu; 7 zinegotzi

URROTZ

5 zinegotzi

HE
Juan Iribarren Etxegiak 75 botu
Jose M^o Urroz Erbitik 58 botu
Manuel Juanena Arozenak 55 botu
Eustasio Mariezkurrenak 52 botu
Juan P. Zozala Goñik 47 botu

ZUBIETA

7 zinegotzi

Iramendi
1991an 110 botu; 4 zinegotzi
1987an Ortzadar bakarrik

HT
1991an 94 botu; 3 zinegotzi

ZUGARRAMURDI

7 zinegotzi

Akelarre
1991an 109 botu; 7 zinegotzi
1987an 99 botu; 7 zinegotzi

Belateko tunela aurten hasiko dira eraikitzen


Obraren aurrekontua 10.881 milioitakoa, hasieran uste zena baino merkeago

JOSEBA I.

Arraizko Benta eta Doneztebe elkartuko dituen Belateko karretera berriaren eraikuntza aurten hasiko dira eta obraren garrantzia dela eta zenbait epetan burutuko da. Aurrekontua 10.881 milioitakoa da, hasierako aurreproiektuan aurkeztutakoa baino merkeagoa eta proiektuaren arabera, bide berriak 18 km. t'erdi izanen ditu eta guztira 4,5 km. betetzen dituzten 3 tunel ere izanen dira. Tunel hauek, Belaten (2.886 metro), Almandotzen (1.233 metro) eta Mugairen (320 metro) egingen dira eta Baztanera Nartarako herrigunetik pasatu gabe joateko moduan egingen da azken zatia. Baztan aldean, errepidearen enlazeak Almandotz, Berroeta, Zozai eta Mugairen bi izanen dira, Legasakoaz gain.

53 milioi gastatu dira bideetan

Baztango herri bideak eta pistak moldatzeko obraren zertifikazioa, 53.031.239 pezetatako da.



Belateko errepidearen proiektuak 10.881 milioitako aurrekontua izanen du

Euskarari buruzko erakusketa burutuko da

Euskarari buruzko erakusketa ibiltaria ibiliko da Baztanen barrena, bertan Oskorri taldearen emanaldia ere aurreikusia dagoelarik. Erakusketa hau

750.000 pztakoa da eta Nafarroako Gobernuak 450.000 pezetetan lagunduko du.

Azkaratera ura eramateko aurrekontua

Erratzuko Azkarate auzora ura eramatea eta de-

positoa egiteak 770.582 pezetatako aurrekontua du eta auzolanaren bitartez egingen da.

Istripu latzak

Kamioarekin izandako istripu batetan hilda suertatu zen joan den astelehenan Noinen, Miguel Mari Barrenetxe 38 urtetako erratzuarra. Baztandarra Kooperatiban egiten zuen lan.

Erratzuko Iturburuko J. Karrikak ere, lan-istripu latza izan zuen belar-pake-tatzeko makinarekin. Honen ondorioz, esku bat galdu egin du.

Hauteskundeak

Union Baztanesak zeukan gehiengo osoa galdu egin du orain. Talde arteko elkarriketa eta negoziazioak hasiak dira alkatetza nork hartuko duen jakiteko. Hurrengo alerako argitusun gehiago.

Xorroxinen eskaria

Sunbillako udalak hartutako ekimenarekin batera, irrati mankomunitatearen zeharkako gestioa Xorroxinek eramateko eskaria luzatuko die Udal guziei.

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



BEATRIZ

Lurrin denda

SANTIAGO 53 - Tfnoa: 5802 83 - ELIZONDO

ZUGARRAMURDI

Komunioak eta bataioa ospatu ziren Maiatzaren 19an

KORO ETA MARGARI

Gan den igandean, Maiatzaren 19an, komunioak ospatu ziren eta haiekin batera bataio bat.

Gero eta ume gutiago sortzen dira eta aurten bi bakarrik ziren komunioa hartzen (Argitxu Agerre eta Iñigo Amorena). Bataioetan, berriz, gauza okerrago doaie: aurten bi izan ditugu baina zoritxarrez haur hauek ez dira herrian biziko. Eskerrak hemengo seme-alabek, nahiz eta kanpoan bizi, bederen be-



ren haurren bataioak herrian egiten dituzten; honela herriko haurrek, bataio batean goxoak eta dirua biltzea zer den ezagu-

tzeko aukera izanen dute.

“Kisulabe” ostatu berria plazan

Lanak honela segiturik,

heldu den hilabeterakoz izanen dugu ostatu berri bat plazan.

Joxe Arburua gazteak erabaki du ostatu hori irekitzea, eta lehenago haragitegia zen tokian izanen da.

Ostatu berria irekitzerakoan gauzarik garrantzitsuenetarikoa izen polita atxematea da, eta Joxek pentsaka pentsaka ibiliz, azkenean “Kisulabe” deitza erabaki du.



FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 45 03 64



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ARROPA DENDA



CERVANTES

HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Neska eta mutilendako udako arropa arinak
Pultsera eta belarritakoak (Zilarrezko, larruzko...)
Oparitzeko bitxikeriak (abanikoak, musika-tresnak...)

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



121 errepide nazionala, 23 74 - IRURITA - BAZTAN

**BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia**

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak



**Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa**

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

Moto-Crossean hogei lasterkalarik parte hartu zuten

ALIZIA OLAIZOLA

Maiatzaren 25-26ean errebestak izan ziren. Baztango eta bertze herrietako jende ainitz izan ginuen larunbat arratsean. Arratsean zikiro jatera ehun bat lagun bildu zen, giro ederrean afalduz. Herriko neskak zerbitzatu zuten.

Gero dantzaldia Drindots taldearekin goizeko 5,30ak arte. Herriko gazteak, biharamuneko indartzeko, gosaldia eta goizaldera joan ziren lo pittak egiterat. Goizeko 11etarako gazteek motocrossaren prestaketetan hasi ziren eta 3etarako sarrerak kobratzen. Sarrera pila saldu ziren eta eguraldi lasa egin zuen, bi ostatu jartzeko ere probetxatuz. Hogei lasterkarik parte hartu zuten hiru mailetan banaturik: Gazte, Senior eta Junior. Lehenengoan, Mikel Zabala izan zen irabazle eta bigarrenen iparralde-



ko bat, Eric Urruty. Lasterkari gazteena Villavako 8 urteko mutiko bat izan zen, Urdazubiko Iñaki Sarroteak ere parte hartu zuen. Hagitz ongi ibili zen zuen bestondoarentzat.

Arratsean herriko gazteek Indiano-baitan eta Arman afaldu zuten gero, dantzaldiaren ondotik,

errebestei bukaera emateko.

Halere, gertaera bat izan ginuen. Gazteek frontoian jarritako ikurriña, errebestaren bezperan desagertu zen. Honekin bigarren urtea da horrelakoa gertatzen dela. Joan den urtean Guardia Zibilek bidali zieten hemen zeuden solda-

duei kentzera.

Leorlasko harrobia ireki da

Maiatzaren 27an hasi ziren lanean eta hagitz marmol ona omen dago. Lehenago ere arituak ziren, baina azkenaldian itxita zeuden. Arduraduna Valentziarra da eta hiru lankide dira oraindik.

ZUNZARREN Gestoria

- Allianz Ras Aseguruak
- Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93

Amaiur Gaztelua 2
31700 ELIZONDO

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barranean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

SARA

Sarako Itzulia Ekainaren 16ean burutuko da

OLHAIN ELKARTEA


Ohidura den bezala Ekainaren 3garren igandean, Axuria Sarako mendizale elkarteak antolatzen du Sarako Itzulia - 91. Elkarre horrek oroiteratzen dauku ibilaldi hori ez dela zoin gehiagoko bat, ez ere laisterkaldi bat. Izen emaitzak telefonaz egiten ahal dira (59542526). Egunean berean, abiatu aintzin, ibildari bakotzak txartel bat beteko du. Kontrol-txartela emana izanen zaio eta denbora berean ibildiaren karta.

Abiatzeko tenoreak

baitezpada betebehara dira (goizeko 7ak eta 9ak artean). Kontrol txartelak baliatu behar dira abiatzean, kontrol-gunetan eta heldzean, gutieneko denborak beteaz. Goizegi etorririko direnak kontrol-gunetan beharko dute gelditu. Heldzeak berriz, 4ak eta 9ak artean izanen dira Sarako plazan. Ibilaldia bururatuko duteneri (ahalaz denboretan barne) agiria emanen zaie.

Bertalde, Sarako plazan, eguarditik goiti, arratsa arte, musika giroa, ostatua eta jatekoak izanen dira.

Sarako itzulia.
Larrun-ttiki.
Atekaleun.
Lizuniaga.
Lizarrieta.
Munoenborda
eta Suhalmendi
barrena.
bertzeak
bertze.
iraganen da



Uda euskaraz

BARNETEGIAK

Uztaila, Abuztua, Iraila
MAILA GUZIAK + EGA

NON:

- ALDUDE
- BERA
- DONEZTEBE
- LEITZA
- LESAKA

UZTAILAN EUSKAL HERRIARI
ITZULIA BIZIKLETAK
GOI MAILAKOENTZAT

Telefonoak: (948) 22 22 46 IRUÑEA.
(948) 63 77 96 LESAKA.
(945) 28 89 22 GASTEIZ.



Matrikula zaitetz!

KANPO IKASTAROK

Uztaila, Abuztua, Iraila
Egunean 4 ordu goizez
MAILA GUZIAK + EGA

NON:

- BERA
- DONEZTEBE
- LEITZA
- LESAKA

Telefonoak: 45 15 55 DONEZTEBE.
63 77 96 LESAKA.

Ikastari



Denetik izan genuen Kultur Astean



Leitzako akordeoi orkestra berriak bere bataioa izan zuen Kultur astearen hasieran. "Aralar" du izena, Maddalen Irigoien zuzendari eta 25 bat akordeolari gazte biltzen ditu orkestra berriak



Kultur Asteak gai politak izan ditu: erakusketak, hitzaldiak (esoterismoa, ehiza...) eta mago bat ere izan genuen Leitzan (Argazkiak: Antton Erkizia)

ARESO

Herriko ura gusto txarrekoa orain

JUANA MARI

Betidanik harro sentitu gara genuen urarengatik. Kanpotik etorritakoek beti estimatu digute hain ona genuen edateko ura; orain dela urte gutxi, sendagileak hasi ziren gure ura ez zela edateko gai esaten, behar ziren arauak ez zituela betetzen eta. Orain, bolada bat daramakigu ura ezin dela edan, kloro edo beste gairen baten anizkeriagatik. Uraren egoera kontro-

latuta dagoen hala ez ez dakigu, baina horrela izango balitz ere, progresoak eta medizinenak dohai zoragarri hori gabe utzi digute.

Kaleak asfaltatuko

Herrian komentatzen da kaleak asfaltatu behar ditzutela, eta berri honek denoi poza ematen digu, baina honi buruz ere zerbait esan dezakegu, oraindik beranduegi ez dela eta: herria askoz ere politagoa eta aberatsagoa geldituko litzateke harriz estalitako



ANTTON

kaleekin, gure ahaideek egin zuten bezala eta inguruko herrietan bezala. Hala

ere, herriak hobekuntzak beti eskertzen ditu.

GAZTAÑAGA

Taberna

Bokadilloak eta pintxoak

Tfnoa: 610708 - LEITZA

Leitzako Euskaitegia

ikastari **ika**

GOIZUETA

Ekainaren 15ean, euskaltegiak antolatutako bertso-festa burutuko da

ESTEBAN AROZENA

Euskaltegia sortu berria bada ere, azken bi urte hauetako emaitzak ikusirik sendo finkatu dela ziurta daiteke, eta horren lekuko hilabete honen 15erako antolatu den bertso festa ikaragarri hori da.

Xebastian Lizasok, Andoni Egañak, Anjel Mari Peñagarikanok eta "Mañukorta"-k osatuko dute laukotea, Manolo Arozena gai-jartzailearen eskutik, ilunabarreko 8,30etan Elkartasuna zine-man burutuko den saioan. Jai haundi honi bukaera ezin hobe, Umore Ona elkartearen ospatuko den bertso-afariak emanen dio.

Esan beharra dago afari honetara joan nahi dutenek aurretik txartela erosi behar dutela, Urrutine tabernan salgai daudelarik. Baita ere aipatu, bukatu berria den bertso-paper lehiaketaren irabazleen izenen berri ere egun horretan jakingo dela afalondorean.

Futbito, mus eta truk txapelketak

Azken hilabete hauetan jokatu diren hiru txapelketa bukatu berriak dira eta zalantzarik gabe Umore Onak antolatutako ekintza hauek aurrean ere arrakasta ederra lortu dute gure herrian.

Futbitoan Eultza nagusitu zen, ondorengo



hauek osatu zutelarik talde txapelduna: Patxi Iribarren, Xabier Mikel Uitz, Juan-txo Apezetxea, Juan Apezetxea, Anjel Salaberria, Asier Mendizabal, Manolo Etxeberria, Jose Jabier Aizkorbe eta Karlos.

Musean, bestalde, Simon Apezetxea eta "Nabarro" izan ziren irabazleak eta trukeko txapelketan berriz, Mirentxu Jimenez eta Jose Jabier Aizkorbe izan ziren aurtengo irabazleak.

Nafarrorako egile ofiziala:

ONENA Tailerrak

Zaldubia Poligonoa, IRURITA (BAZTAN)

deceuninck

 Behar duzuna, PVCn • Tfnoa: 580532



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinu,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

MENDI HOTELA



DONAMARIATKO BERTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

EZKONTZAK

Antonio Martin Morales eta **Ana Cañete Diaz**, Madrilgoak, Maiatzaren 3an, Elizondon.

Fernando Ibarrola Barberena, eta **Presentacion Iraola Maritorrena** Alkoz eta Berroetakoa, Maiatzaren 4ean.

Patxi Elizetxe Telletxea eta **Asuncion Mariezkurrena Mariezkurrena** Elizondokoa eta Leitzakoa, Maiatzaren 11an.

Antton Apeztegia Lanaspas eta **Virginia Loiarde Santesteban**, Doneztebe eta Zubietakoa, Ekainaren 1ean.

Jose Diego Sarratea Agirre eta **Ana M^a Agirre Alberro**, Doneztebekoak, Ekainaren 1ean.

JAIO TZAK

Iñaki Bertiz Goienetxe, Etxalarren, maiatzaren 3an.

Patxi Bengoetxea Ibarra, Elizondon, Maiatzaren 1ean.

Amagoia Otondo Iribarren, Amaiurren, Maiatzaren 3an.

Bidane Apezetxea Berho, Oronotzen, Maiatzaren 16ean.

Nekane Mitxelena Arizaleta, Lekarotzen, Maiatzaren 20ean.

Agurtzane Galarregi Aleman, Gartzainen, Maiatzaren 24ean.

Egoitz Gamio Mitxelena, Narbarten, Apirilaren 20ean.

Gontzal Belarra Muro, Donezteben, Maiatzaren 25ean.

Nekane Mitxelena Arizaleta, Orabidean (Lekarotz), maiatzaren 20an.

Edurne Juantorena Zuñiga, Leitzan, maiatzaren 11an.

HERIOTZAK

Victoria Loiarde Elizalde, Zubietan, Maiatzaren 19an, 55 urte.

Ignacio M^a Ortigosa Irigoien, Elizondon, Maiatzaren 2an, 81 urte.

Clara Urdanibia Zoziaia, Elizondon, Maiatzaren 4ean, 74 urte.

Joakina Arregi Zabaleta, Maiatzaren 6ean, Elizondon, 85 urte.

Jose M^a Majirena Igoa, Zigan, Maiatzaren 11an, 86 urte.

Anastasia Ibarra Astiz, Elizondon, Maiatzaren 17an, 74 urte.

Manuela Gonzalez Fernandez, Elizondon, Maiatzaren 24an.

Maria Mitxelena Teresa, Sunbilla, Maiatzaren 19an, 85 urte.

Lino Iriarte Gamio, Narbarten, Maiatzaren 28an, 70 urte.

Jeronima Altzuri, Arantzan, Maiatzaren 26an.

Jose Maria Sainz Lopez, Sunbilla, Maiatzaren 27an, 83 urte.

Antonia Astibia Baraibar, Leitzan, maiatzaren 20an, 78 urte.

Miguel Mari Barrenetxe, Erratzukoa, maiatzaren 27an, 38 urte.

Honez gero Saran ikus daiteke ETB Sarako Udalak BORTZIRIn jarri du bere konfidantza

BORTZIRI:

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * T.B., Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91


Herrietako eskolak

*Bertan ikastea edo kanpora joatea hobe? Eskola haundiak ala ttikiak?
Konzentratuak edo bateratuak?*

Herriak, *ttipi-ttaparen* eskualde edo eremuko herriak, ttikiak dira.

Umeak gutti. Gutti direlako, eskola gehienak bateratuak ditugu, eskolaurre eta OHO (EGB)ko lehen ikasturtetako haurrak bilduta daudelarik: bi, hiru edo lau mala edo kurtso-takoak gela berean. Azken urteetakoak berriz, herri haundiagotako eskoletara biltzen dira, «konzentratu»etara. Goizueta, Leizua, Doneztebe, Elizondo eta Beran ditugu azken hauetakoak.

Egoera ezberdinak, hiriburu edo kapitaleko eskola haundiekin gonparatzen baditugu. Baina herri bakoitzeko eskola bateratuan eta eskola konzentratuan aurki daitekeen egoera ere desberdina da. Heziketarako (edo ikasketarako?) aukera osagarriak baditu hiriburu edo herri haundiak, herri ttikiak ez dauzkanak, behar bada. Herri ttikiak ere, ordea, eskeintzen ditu haundiak ezin eskaini dituenak. Ikasle, irakasle eta guraso arteko eta naturarekiko harremanak ez dira berdinak izaten ahal batean eta bertzean. Eskola, haurra bizi den leku berean egoiteak edo herritik kanpora joateak, ondorio desberdinak dakarzki.



Egoera ezberdinetan ari diren maisu-maistra deituketu ditugun irakasleek, herrietako eskola desberdinez zernolako ikuspegia daukaten jakin nahi izan dugu. Elkarrizketatuak honako hauek ditugu:

Pello Lizarralde, lau eta hamar urte arteko hamabi neska-mutiko biltzen diren Azpilkuetako eskolan ari dena.

Etxalarko irakasle taldea: Kontxexi Arangoa, Encarna Doval, Luzia Irazoki eta

Junkal Altzugurenek osatua, eskolaurretik seigarren ikasturterainoko haurrak dauzkanak, lau gelatan banatuak.

Jabier Pinto eta Maite Lopez, Doneztebeko eskola konzentratuan daudenak.

ttipi-ttapa.— Zein da eskolatako irakaslearen egitekoa gaur? Lehen baino gauza gehiago irakastea da helburua?

Pello.— Nikesango nuke gure herrietan eskola dela kanpora begiratzeko daukaten leiho bakarra.

Etxalarko taldea.— Ez da gauza gehiago irakastea. Orain haurrari, barruan daukana atera, eta bere kreatibitatea eta ahalmenak kanporatzeko posibilitate gehiago ematen zaio. Gutxiago memorizatzen du, baina pentsatzen irakasten zaio, bere nortasuna desarrollatu dezan.

Maite.— Gure gaurko helburua erabat ezberdina da eta haxe izango litzateke umearen bizitzerako heziketa osoa lortzea, hain zuzen.

Jabier.— Eskola gehienetan bi helburu orokor daude: irakaskuntza helburua, eta hezkuntza helburua.

ttipi-ttapa.— Herri ttitakotako eskolak ongi bete dezake bere eginkizuna edo eskasagoa eta pobreagoa gertatzen da, hiriburuko eskola haundien ondoan?

Pello.— Eskola gehienetan baliabide berdintsuak daudenez, gure lana besteek bezain ongi edo gaizki egin ahal dugu.

Etxalarko taldea.— Irakaskuntza berdina da eskola haunditan edo ttitikitan. Laguntza gehixeago daukate, behar bada, eskola haundiek, psikologo eta pedagogoen aldetik.



«Eskola da kanpora begiratzeko daukaten leiho bakarra»



«Irakasleen aldetik, ez dut uste pobreagoak direnik eskola ttitikiak»



«Eskola bateratuak talde naturalez osatuak daude»

Maite.— Irakasleen lana aldetik, ez dut uste pobretasun haundiagorik azaltzen denik; hiri haunditan aurki daitezkeen baliabide batzu herri ttitikietan falta

direla, hori bai: erakusketak, zineak, teatroak, musoak, alegia.

Jabier.— Ongi bete dezakeela erantzun behar dut.

Haurren irakaskuntzaren maila baxuagoa iruditu arren, kontzentrazioetara etortzen direnean ez dut desberdintasunik aurkitzen.

ttipi-ttapa.— Zein dira herri bakoitzeko eskola bateratuak dauzkan alderdi on eta txarrak, eskualdetako kontzentratuekin gonparatuz gero?

Pello.— Eskola bateratuak alderdi on asko du. Haurrek ez daukate herri-tik mugitu beharrik, eta ezagutzen dituen lagunekin bilduko da eskolan. Eskola bateratuak talde naturalez osatuak egoten dira.

Etxalarko taldea.— Eskolako giroa familiarragoa da, haur guziek elkar ezagutzen dutenez. Kontzentrazio batean hori zaila da, eta, alderdi honetatik, inpertsonalagoa bihurtzen da.

Maite.— Bere alde ona, heziketa globalizatuagoa egin daitekeela izango litzateke. Beste aldetik, haurrek ez dutela bere herrietatik mugitu behar, eskola haundi batean galtzeko. Hala ere, seigarren mailatik aurrera aldaketa hori komenigarria zaie, esperientzia zabalagoa eskura dezaten.

Jabier.— Alde ona, haxe: beti beraien giroan daude, ondorioz integrazio hobea lor dezakete eta heziketaren helburuak errazago beteko dituzte.

PELLO APEZETXEA

Txirrindularitza

Francisco Sotak irabazi zuen Lesakan Marino Lejarreta V. Saria



Baztan - Erreka - Bidasoa (AHV) taldeak maila ederra erakutsi zuen V. Marino Lejarreta Sarian

Elektra taldeko Francisco Sotak irabazi zuen Maiatzaren 26an Lesakan ospatutako V. Marino Lejarretaren saria, horrela kadete mailako Nafarroako txapelketa eskuratuz.

Elektra taldeko txirrindulariak 5 segundutako abantaila atera zion helmugan bigarren postua

lortu zuen P. Tomas taldeko Iñigo Lergari. Hasierako kilometroetan, Baztan-Erreka- Bidasoa (AHV) taldeko hainbat txirrindulari saiatu ziren taldetik aldegiten, baina laisterkaldia ongi kontrolatu zuten Mafre eta Elektra taldeek.

Piedadeko gaina igo-tzean (helmugatik 13 bat

kilometrotara) hautsi zen karrera, Lesakako helmugara tropela hagitik banatua ailegatu zelarik.

Partehartze eta eguraldi bikaina

Izena eman zuten 135 kadeteetatik, bakarrik 84ek lortu zuten sailkatzea. Sari desberdinei dagokienez, Iñigo Lergak irabazi zuen

mendiko 'saria, Francisco Sota eta Ismael Perezen aintzinetik. Meta bolanteak Francisco Sotarentzat izan ziren.

Azkenik, aipatu irabazlearen batz besteko abiadura, orduko 36 kilometrotakoa izan zela eta karrera guztian zehar eguraldi ederrak lagundu zuela.



Francisco Sota izan zen garaile Lesakako helmugan



Txirrindulari aunitz saiatu ziren "pelotoiaren" lasaitasuna hausten

Txirrindularitza

Nafarroako kadete mailako txapelketaren sailkapenak (V. Marino Lejarreta Saria)

- 1.- Francisco Sota (Elektra), 1:43:17
- 2.- Iñigo Lerga (P. Tomas), 1:43:22
- 3.- Ismael Perez (Mapfre), 1:44:38
- 4.- Alvaro Abril (Urgon), denbora berean
- 5.- Carlos Moreno (Jofemar), denbora berean
- 6.- Angel Arrieta (Elektra), 1:45:09
- 7.- Patxi Vila (AHV), denbora berean
- 8.- Aitor Apeztegia (AHV), denbora berean
- 9.- Martin Rekalde (P. Tomas), denbora berean
- 10.- Ruben Torres (Asesores Navarra), 1:45:12



Bera eta Sunbilla Nafarroako txapeldun haur mailan

Maiatzaren 19an ospatu zen Sunbilla Nafarroako I Herri Kirol txapelketa Haur mailan. Final honetan 200 kirolarik 24 taldetan banatuak egon ziren norgehiagokan eginahalak eginez bere herrira txapela eskuratzeko.

Sailkapenak

Froga konbinatuan, infantilak: 1. Ultzama, 2. Sunbilla, 3. Bera (R. Ba-

roja), 4. Lesaka, 5. Arantza eta 6. Betelu.

Froga konbinatua alebin: 1. Sunbilla, 2. Bera (S° Czon.), 3. Lesaka (Tantirumairu), 4. Lesaka (Irain), Betelu eta Larraun.

Sokatira alebin: Bera (S° Czon.), Arantza, Irurtzun, Ultzama, Irain, Aibar.

Sokatira infantil: Ultzama, Irurtzun, S° Czon., Sunbilla, Irain, Labaien.

Hamabostaldiko jokaldiak



Eskualdeko futbol taldeak. Ligak bukatu dituzte, eta ez da bakar bat ere mailaz jeitsi. Hala ere, igotzeko puntuan egon den bakarra Leitzako Aurrera izan da, Baztan, Beti Gazte eta Gure Txokoa nahiko mottel ibili bait dira.



Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Udalak.

Zonalde hauek kirol koordinatzailearik gabe uzteagatik. Kirol mailan egiten ari zen guztia, geldialdi bat izateko arriskua du.

Zenbait aklarazio azkeneko kolaborazioari buruz

Gehiegizko konfidantzaren ezusteak

Lerro hauen bitartez, sail honetako azkeneko kolaborazioan (*Poteotik alkoholismora*) agertutako argazkiak sortu ahal izan dituen interpretazio okerrak argitu nahi ditugu:

1.- Argazkian ageri direnak argazki-oinean diodenarekin zuzenki lotzeak, ez duela errealitatearekin zerikusik.

2.- Argazkien bitartez azaldu nahi izaten dena, alkoholismoaren hurbiltasuna eta arruntasuna baino ez dela; inola ere ez, pertsona kokretu horiek alkoholikoak izanen bailiran identifikatzea.

3.- Guzi honen kausa, segurki, adiskideen arteko gehiegizko konfidantzaz komunikabide honetan baliatzean dagoela; nor-nahik interpretazio okerrak sortzeko bide emanez.

1991ko errentarendako soluzio on bat nahi al duzu?

Pasa zaitez gure bulegoetatik eta hitzeginen dugu

Pentsio planak
“Ahorro vivienda”

Nafarroako Aurrezki Kutxan
soluzio bereziak ditugu zuretzat





NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

Ekainetik Irailera larunbatetan itxita

ARO BERRIAREN ATARIAN

Astrologia

Bi irakasleren karta astralak



tza eskatu behar izatea gaitzesten dute.

Irakaskuntza

Mitologian, gizonek Jainkoei sua ebatsi zietenan lortu zuten ezaguera eta jakintza.

Maisu-andereño artean ez dut aurkitu ezaugarri berezi bat, baina denetan, gisa batera edo bertzer hori topatzen dira beti suzko zein-

Hauek dira bi irakasleren kartak, guztiz diferenteak, baina biak lan berdinean ari dira.

Egia erran, ez zait erraza egiten pertsona baten kartarekin, soil-soilik, zein lanetan ari den asmatzea.

Jakina da aunitzetan beharrak bultzatuta aukeratzeko dugula lana. Baina, behin aukeratu gero, se-

gitzeko zortea baino gehixiago behar da.

Arantxa Agirre

Berako monjen eskolako andereño dena Beratarra eta Capricornio da.

Planetak karta guztia-tik banatuta daude, eta haiek bortsu zeinu mutabiletan. Honen erranahia, gauza aunitzez interesatzen dela, edozein egoeratar-

egokitzen ahal dela. Daukan arriskua dispersioa da.

Mikel Arburua

Etxalartar Libra hau, Berako eskolan ari da.

Planeta gehienak ezkerreko goiko aldean izateak pertsonalitate berezia eta bitxia ematen dio. "Arkitecto" edo "eraikitzaileen figura" ere hor dauka. Honelakoek, bertzei lagun-

nutan planetak, Sagitario edo bederatzigarren etxea garrantzitsuak, edo Jupiter planeta indartuta.

Hemengo bi kasuetan, gainera, nodoa ere (bizi honetako bete beharra) hortxe daukate aipatutako planetei aspektuak eginez.

FERMIN ALTZUGUREN

LUR APAL
MEKANOTERAPIA
ZENTROA

BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA

HOTZ INDUSTRIALA

KAMARAK, BOTILATEGIAK...

ZERBITZU TEKNIKO PARTIKULARRA

Tfnoa: 631108 / 630898 - BERA

BRAHER **icematic** **LOVILLI** **KORCA**
KLAXON **La San Marco** **SAMMIO**
San Marino **Jem** **REPAGAS** **winterhalter**

LARRUKOLORE

LARRUAREN

- Berritze
- Birkoloratze
- Konponketa

☎ 637141 - LESAKA

☐ Arkumea Mertzaria

☎ 63 04 82

San Esteban 25 - BERA

Etxebizitzak

• **Oronoz-Mugairen** 2 pisu eder salgai. Prezio intersgarriak. Informazioa 592133 Tfnoan. Catalan-en emazteaz galdetu.

Lana

• **Baztanen edo Dantxarinea** aldean, etxeko lanetan, komertzioren batean edo jatetxetan lana egiteko prest bi neska uztaile edo abuztuan. Deitu 453344 eta 453174 tfnora.

• **31 urteko emakume** batek, haur edo adintuak zainduko lituzke 9etatik 2ak arte. Esperientziduna pertsona adintuekin. Dei 631235 telefonora.

• **Zure dirusarrerak** haundiagotu nahi badituzue dei ezazue 450573 tfnora.

• **19 urteko** neska bati, hortz protesi laboratorioan eta jatetxetan 2 urtetako esperientziarekin, haurrak zaintzen edo jende aurreko lanetan aritzea gustatuko litzaioke. Tfnoa: 45 15 18.

• **Uda garaian**, Leitzaringuruan lan egingo nuke haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 51 00 12.

Denetarik

• **Silvia Mazizior**-ekin frantses klaseak hartu nahi badituzu deitu 630108ra.

• **Aziendentzat** belarra erosiko nuke. Guk moztuko genuke. Tfnoa: 45 15 18.

Salerosketak

• **Ordenadorea** salgai. Inves PCX 10, 3,5eko bi disketerakoa, inprimagailua, WordStar eta mahaia, berri berria. 90.000 pzta. Tfnoa: 634126, gauez.

• **Sukalde** batetako formikazko altzariak salgai oso prezio onean. Erabili gabe eta plantxatzeko tablarekin. Tfnoa: 637872.

• **Bitrina-kamara** bi, harakindegirako salgai. Berriak daude eta merkeak. Tfnoa: 637872.

• **Borsini akordeoia**, 120 bajuekin, tekladun basetiekin eta egoera ezin hobean salgai. Tfnoa: (943) 624070.

• **Bi behi** ernari (7 urteko holandesa eta 4 urteko pirenaika) salgai. Baita ordeñadora bat ere. Tfnoa: 637461.

• **Esne tanke** bat salgai, ALFA-LAVAL markakoa 445 litrokoa. Kondizio onean dago. Tfnoa: 599176 (Urdazubi).

• **Euskal artzai** txakurkumeak salgai. Tfa: 451518

• **Etxe, baserri edo borda** erosiko nuke eskura ordainduz. Tfnoa: 30 50 07.

• **Trikitixa** erosiko nuke. Oso merkea, bigarren eskukoa. Tfa: 51 01 77.

• **Collie** arrazako txakurkumea salgai. 59 92 18.

Harremanak

• **Jasone Ariztian** atzetik nabil. Harek badaki nor naizen. Muxu bat.

• **Chemarentzat**: Ezagutu zintudanetik orain arte zutaz maitemindurik nago. Muxu bat Berako Profesionalean estudiantzen ari den baten partez.

• **Yolandarentzat** zorionak bere urtebetetzean, aunitz urtez elkarrekin zoriontzeko. Zure lagun bat. Besarkada haundi bat eman ez ikusi arte.

• **Leitzako** Xanti Zelari besarkada haundia Lesakar neskata baten partez.

• **Begira** nago begira etorriko zareten gure herri-
ra, eguzkirik ikusi gabe,
txoria egoten da triste, ni
ez nau ezerk alegatzen,
zuek ikusteak hainbeste.
Goizuetako Eli, Lore eta
Elenari leitzar batek.

• **Mugaireko** Izasku-
nentzat: Berriro bertze urte
bat pasatu da, baina orain-
goan ximurak atera zaiz-
kizu. Zorionak! Ainhua.

• **Iruritako** Olaiaren-
tzat, urte bat bete eta asko
betetzeko opatuz. Oso
maite zaitut. Joseba.

• **Ezkurrako** Javier
Zabaletari bertako neska
bat zutaz eroturik dago.
Ikusi arte. Muxu bat.

• **Eratsungo** Claudio-
ri: Esna zaitez! Zuk ezagu-
tzen duzun bat zu ikustea-
gatik bizi dela. Bi musu.

• **Mugaireko** Ainhua
E.-rentzat. Nire bihotzeko
azukre koxkorra zara, musu
bero bat eta ikusi arte. N.B.

• **Urrotzko** Ana Zo-
zaiarentzat. Non daude le-
hengo irripak eta elkarritz-
keta alai haiek? Ez egin
negar, ez du merezi. Lagun
bat. Ez haserretu mesedez.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZIETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

BERAN JAIALDIA

EGUNA: EKAINAK 8

TOKIA: Eguraldi ona bada
BERAKO PLAZAN, eguraldi
txarrarekin ALTZATEKO
PILOTALEKUAN

ORDUA: GAUEKO 11etan

CARLOS MEJIA GOGOY y los de PALACAGÜINA



BERAKO UDAL KULTUR BATZORDEA

AMAIUR

**sukalde eta
bainu
altzariak**

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE

Vegasa®



ALMACENES ETXANIZ, S.A.



**Lesakako
Iturria anaiak**



**Irunen, zure bainurako
behar dituzun osagarri
guziak: griferiak,
manparak, mobleak,
gres eta zeramikak**

**Juan Arana, 3
Tfnoa: (943)
61 17 67
IRON**